


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**URBIETA 54****Egilea eta data: Luis Elizalde, 1906****Deskribapena**

Izkinako etxea. Behe oina, bost goi oin eta mantsardatutako jasodura bat ditu (250 m² inguruko orubean). Luis Elizaldek 1906an eraiki zuen; proiektu komun baten arabera, apaindura aberastasun txikiagoko Moraza kalearen 11 eta 13 zenbakiak jasotzen ari ziren bitartean. Aldameneko eraikinekin mehelin patioa bat partekatzen du eta oin bakoitzeko bi etxebizitza dauzka. Fatxada nagusiaren antolamenduak, Urbietara ematen duten baoen erdialde nabarmendutik abiatuta, etxearen atariaren kokapenarekin du zerikusia. Ardatz horren bi aldeetan, erlaitzean islatutako konposizioa errepikatzen da, ertzeko begiratokiak aldatuta. Erlaitza lehen eta bosgarren oinetako balkoi jarraituek biltzen dute. Bosgarren oina fatxadaren plano bereko atiko gisa dago konfiguratuta. Lehenengotik laugarrenera bitarteko oinak altuera bikoitzeko bi multzotan parekatuta daude, balkoien dimentsioaren bidez eta dekorazioaren laguntzarekin. Ildo horretatik, hegaletako mentsulen erliebeak eta behe oineko baoen forma modernistak nabarmentzen dira.

Babes erregimena

- 1.- Babes erregimen orokorra:
 - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
 - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berriazko babes erregimena:
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: seigarren oineko jasodura; arotzeria.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandua.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Moraza 11rekin eta 13rekin batera osatzen duen esku hartze unitatean sartzearen ondoriozkoak.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzeak: hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari lotuak, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.